# MISIONES DIOCESANAS VASCAS
# CAMPAÑA 2011

## CATEQUESIS 12-16 AÑOS




misiobi@misioak.org. Bilbao
misiovit@arrakis.es. Vitoria-Gasteiz
misiodon@arrakis.es. Donostia
www.misioak.org

# “Es tiempo de soñar proyectos compartidos”

12-16 años

**Objetivos:**

- Suscitar actitudes que despierten en los chicos y chicas compromisos solidarios.
- Conocer algunos de los proyectos de Misiones Diocesanas.
- Formular un compromiso a partir de lo trabajado.

**(Ver)**

DINÁMICA: **“LA ISLA DESIERTA”**

**EXPLICACIÓN DE LA DINÁMICA**

1. Se divide el grupo en subgrupos de 5-7 personas y se les da a cada uno un plano de la isla además de una lista con los restos del naufragio que el mar ha traído hasta la orilla.
2. El escenario para cada uno de los subgrupos, es el siguiente:
   “Sois los únicos supervivientes del naufragio, habéis llegado a esta isla (se les dan tres minutos para cada grupo elija el punto de la isla al que ha llegado. Luego no se podrá modificar) la marea, ha arrastrado algunos restos del barco: un baúl y algunas maderas”.
3. Se les da el mapa de la isla donde también está la lista de los restos del naufragio.
4. Tienen que planificar las tres próximas semanas Realizando las siguientes tareas:
   - Reconocimiento de la isla.
   - Búsqueda de alimentos y agua.
   - Organización del trabajo.
   - Lugar y forma de vida.
   - Postura frente a la tribu.
   - Respuesta ante posibles enemigos.
   - Posibilidades de rescate.
5. Después de unos 30 minutos se ponen en común las estrategias y se pasa a la evaluación en la que se podrán hacer las siguientes preguntas: ¿cómo nos hemos sentido?, ¿cómo se tomaron las decisiones?, ¿qué roles surgieron?, ¿qué problemas se dieron?, ¿qué soluciones?, ¿cuál es nuestra idea de enemigo?...

Imaginemos por un momento que las actitudes que habéis experimentado durante la dinámica se pudieran trasladar al mundo entero, y a cómo se relacionan los países y gobiernos entre ellos. En un mundo en permanente conflicto los países ejercen la ley del más fuerte, luchan a diario para mantener el liderazgo mundial, algunos por sobrevivir, y otros por mantener una posición de fuerza poder y riqueza. Ese no es el mundo que nosotros soñamos. ¿Alguno de los grupos ha resuelto la situación con una actitud cooperativa y participativa? Pensad en ello.

Las personas deben ser el motor que mueve el mundo, las que construyan otro mundo posible. Los cambios empiezan en nosotras y nosotros.

**(Juzgar)** Mateo 5, 13-16

¿A qué nos llama este texto?

**Las Misiones Diocesanas Vascas tratan de ser Sal y Luz del mundo, tratan de construir un mundo basado en la cooperación y la hermandad, y todo ello a la luz del evangelio y porque soñamos con un mundo diferente.**

Queremos compartir con vosotras y vosotros algunos de nuestros sueños, Estos sueños no son nuevos, parten de una larga historia vivida por muchas personas que son presente; y que siguen caminando y trabajando hacia un futuro en el que todas las personas podamos vivir con dignidad.

## ALGUNOS DE LOS PROYECTOS COMPARTIDOS

### Las comunidades eclesiales de Base

Están formadas por grupos de familias que se reúnen para hablar de sus problemas y buscar juntos soluciones, desde el análisis de la realidad y desde la lectura de la Palabra de Dios. Personas que muchas veces por su condición de pobres no han sido tomadas en cuenta, con la comunidad empiezan un proceso de participación y organización. **Las comunidades se sustentan sobre estas bases: el trabajo comunitario, las reuniones, la reflexión desde la Palabra de Dios y la coordinación. La comunidad se organiza y se coordina con otros grupos y comunidades para buscar soluciones más eficaces**

### Los Proyectos de desarrollo local

Son Proyectos que se están llevando adelante con el esfuerzo de las comunidades, tanto en la provincia de El Oro como en Los Ríos Ecuador. Son proyectos globales que abarcan muchos campos y en los que están implicadas muchas personas: **mejoramiento de la agricultura, legalización de tierras, cajas de ahorro y crédito, capacitación y formación en salud, educación, escuelas, Derechos Humanos, creación de empresas comunitarias, constitución de organizaciones jurídicas y políticas,** etc….

### Los grupos de misiones y solidaridad

Son grupos que nacen en las parroquias o zonas pastorales de nuestras diócesis, cuyo objetivo es **la animación misionera a través de la sensibilización, la cooperación, apoyando proyectos y la formación de sus miembros**. Algunos grupos dan el paso hacia **el hermanamiento** con la comunidad a la que empezó apoyando sólo económicamente.

### Los hermanamientos

Hermanarse es hacerse hermanos. Comportarse fraternalmente…., con igual dignidad, dando y recibiendo, acogiendo, escuchando, dialogando, compartiendo valores, luchando juntos por un mundo donde sean respetados los derechos fundamentales de todos los pueblos. Implican la organización de dos grupos, de aquí y de allá con una

exigencia de compromiso; una disposición de cambio de las personas, de conocer al otro, de ponerse en su lugar,..Esta relación supone un encuentro humano, de poner rostro y afecto a la realidad de pobreza, de crear lazos de amistad. **Supone dar-nos y recibir de ellos e ir aprendiendo cada día mientras se afianza el compromiso del trabajo por un mundo justo. En nuestras diócesis hay hermanamientos entre parroquias de Euskadi y Ecuador y se van dando pasos hacia este sueño de vivir como hermanas y hermanos**.

**El comercio justo**

Es una propuesta que nos invita a actuar. Es un ejercicio **práctico, solidario;** un acto de **justicia** con el Sur.
Es ejercicio práctico, **porque nos pone en movimiento,** Nos habla de solidaridad desde lo cotidiano, es **pensar al comprar**, es hacer un consumo responsable
Es un acto de justicia, porque nos **habla de una relación entre iguales**. **Nos sitúa en un modelo alternativo de vida: comunitaria, ecológica, fraterna...**

**También compartimos otros proyectos de trabajo en red como la banca ética: FIARE, las ONGD…**

**(Actuar)**

Queremos que compartáis también los sueños que tenéis para este mundo, y para que lo hagáis más visual os invitamos a dibujar en un papel de estraza grande el contorno de un Mapamundi:

Ahora escribid en post-it cada uno de vosotros al menos un comentario del mundo que soñáis, y una vez hecho colocad el post-it en cualquier lugar del mapa.
Os ayudamos con algunos ejemplos:

Jenny, Ecuador: "Sueño con un mundo donde las familias campesinas ganemos la plata necesaria para vivir mejor".

Toni, Angola: "Sueño con un mundo donde todos los jóvenes tengan oportunidades".

Marta, de Basauri "Sueño con un mundo donde todos tengamos trabajo".

Vuestro turno:

Da igual si venimos del norte o del sur, del este o del oeste, todos compartimos sueños hermosos para nuestro mundo, ahora la pregunta es:

**¿Qué estamos dispuestos a hacer para que se hagan realidad?**

**En Misiones Diocesanas tenemos la puerta abierta para todo aquel que quiera compartir nuestros sueños e implicarse en hacer cada día otro mundo posible.**
**Mapa de Petere**

**EUSKAL ELIZBARRUTIETAKO MISIOEN**
**KANPAINA 2011**

**KATEKESIA 12-16 urte**





misiobi@misioak.org. Bilbao
misiovit@arrakis.es. Vitoria-Gasteiz
misiodon@arrakis.es. Donostia
**www.misioak.org**

# Ametsak eta proiektuak elkarrekin egiteko unea

12-16 urte

**Helburuak:**

- Neska-mutilengan, elkartasun konpromisoak sortzen dituzten jarrerak piztu.
- Elizbarrutietako Misioen egitasmo batzuk ezagutu.
- Landutakoaren arabera, konpromisoren bat formulatu.

<u>**(Ikusi)**</u>

DINAMIKA: **"IRLA HUTSA"**

**DINAMIKAREN AZALPENA**

5. Taldea, 5-7 lagunez osatutako talde txikietan banatu eta bakoitzari irlaren planoa eta mareak itsas bazterreraino ekarri dituen itsasontziaren urperatzearen hondarren zerrenda emango zaizkie.
6. Hauxe da talde bakoitzarentzako gertalekua:
   "Itsasontziaren urperatzetik bizirik atera zareten bakarrak zarete eta irla honetara heldu zarete (hiru minutu emango dizkiegu talde bakoitzak irlako zein lekutara iritsi den aukera dezan. Gero ezingo da aldatu). Mareak itsasontziaren zati batzuk ere ekarri ditu: kutxa eta ohol batzuk".
7. Irlaren mapa eta urperatzearen hondarren zerrenda jasotzen dituen orrialdea banatuko jake.
8. Hurrengo hiru asteak planifikatu behar dituzte ondorengoak eginez:
   - Irla ezagutu.
   - Jakiak eta ura bilatu.
   - Lana antolatu.
   - Bizilekua eta bizimodua.
   - Jarrera tribuaren aurrean.
   - Erantzuna etsaien balizko erasoei.
   - Erreskaterako aukerak.
6. Hogeita hamar minuturen ostean, estrategiak batera jarri eta ebaluaketari ekin, honako galderak eginez: nola sentitu gara?, nola hartu ziren erabakiak?, zein eginkizun sortu zen?, zein arazo sortu zen?, zein konponbide?, zein ideia dugu etsaiaz?

Imajina dezagun une batez dinamikan esperimentatu dituzuen jarrerak mundu osora lekualdatzeko aukera bagenu eta herrialdeen eta gobernuen artean nolako harremana izango litzatekeen jakiterik bagenu. Etengabeko gatazkan murgilduta dagoen munduan, herrialdeek indartsuenaren legea ezartzen dute, egunez egun borrokatzen dihardute, batzuek munduko buruzagitzari eusteko, beste batzuek bizirik irauteko eta beste batzuek botere eta aberastasuna ugaltzeko. Hori ez da guk amesten dugun mundua. Talderen batek konpondu du egoera lankidetza eta partaidetza eragiten dituen jarrerarekin? Hausnartu horren inguruan.

Gizakiek izan behar dute mundua mugitzen duen motorra, posible den beste mundua eraikiko dutenak. Aldaketak geuregan hasten dira.

**(Epaitu)** Mateo 5, 13-16

Zertara deitzen gaitu testuak?

**Euskal Elizbarrutietako Misioek munduarentzat Gatz eta Argi izaten saiatzen dira, lankidetzan eta senidetzan oinarritutako mundua eraikitzen ahalegintzen dira eta, beti ere, ebanjelioaren argitan eta bestelako mundua dugulako amets.**

Gure ametsetako batzuk elkarbanatu nahi ditugu zuokin. Amets hauek ez dira berriak; gaur egungo lagun askok eta askok bizi izandako historia luzearen zati dira. Lagun horiek, bidean eta lanean jarraitzen dute gizaki guztiok duintasunez bizitzeko aukera izango dugun geroari begira.

## ELKARBANATUTAKO PROIEKTUAK

**Oinarrizko eliz elkarteak**

Beren arazoez hitz egiteko eta, errealitatea aztertuz eta Jainkoaren Hitza irakurriz, elkarrekin konponbideak bilatzeko biltzen diren familien taldeek osatzen dituzte. Pertsona horiek, askotan pobreak izateagatik, ez ditu inork kontuan hartu eta elkarte hauetan parte hartzeko eta antolatzeko aukera dute. **Hauek dira elkarteon euskarriak: elkarte lana, bilerak, Jainkoaren Hitzaren inguruko hausnarketa eta koordinazioa. Elkartea beste talde eta elkarte batzuekin antolatzen eta koordinatzen da, konponbide eraginkorragoak bilatzeko.**

**Lekuko garapenerako egitasmoak**

Ekuadorreko El Oro eta Los Rios probintzietako elkarteen ahaleginari esker aurrera eramaten diharduten egitasmoak dira. Arlo askotara zuzendutako egitasmo globalak dira eta makina bat lagunen konpromisoa dago tartean. Honakoak dira: **nekazaritza hobetu, lurrak legeztatu, aurrezki eta kreditu kutxak, gaikuntza eta heziketa osasun, hezkuntza, eskola, giza eskubideen arloan, elkarte enpresen sorkuntza, erakunde juridiko eta politikoetan eratu, e.a.**

**Misio eta elkartasun taldeak**

Gure elizbarrutietako parrokia edo pastoral lurraldeetan sortzen diren taldeak dira. Hauxe da beren helburua: **misiolari sustapena, sentsibilizazioa, lankidetza, egitasmoen garapena eta kideen heziketa bultzatuz.**

Talde batzuek beste urrats bat ere eman dute: hasieran diruz laguntzen zuten elkartearekin **senidetzea** gauzatu.

**Senidetzeak**

Senidetzea, anai-arreba egitea da. Anai-arreba bezala jokatzea..., duintasunez, emanez eta jasoz, harrera eginez, entzunez, elkarrizketan jardunez, balioak

elkarbanatuz, herri guztien funtsezko eskubideak errespetatuko dituen munduaren alde elkarrekin borrokatuz.
Horretarako, bit alde antolatu behar dira: hemengoa eta hangoa; konpromisoa ezinbestekoa da; kideek aldatzeko, bestea ezagutzeko, bere lekuan jartzeko... prest egon behar dute.
Harreman honek pertsonen arteko bategitea dakar, pobretasunaren errealitateari aurpegia eta maitasuna jartzea, adiskidetasunezko lokarriak eratzea. **Geure burua ematea eta beraiengandik jasotzea da; egunez egun ikastea, mundu zuzenaren alde lan egiteko konpromisoa sendotzen den bitartean. Gure elizbarrutietan, Euskadiko eta Ekuadorreko parrokien arteko senidetzeak daude eta anai-arreba bezala bizitzeko amets horretarantz jotzeko urratsak ematen ar idira.**

**Bidezko merkataritza**

Jardutera garamatzan proposamena da. Ariketa **praktikoa, solidarioa** da; Hegoaldearekiko **zuzentasunezko** jarduera.
Jarduera *praktikoa* da, **martxan jartzen gaituelako.** *Elkartasunaz* hitz egiten digu egunerokotasunetik; **erosterakoan pentsatzea** da kontua, kontsumo arduratsua bultzatzea.

*Zuzentasunezko* jarduera da, **berdinen arteko harremana adierazten digulako. Bestelako bizimodu baten kokatzen gaitu: komunitarioa, ekologikoa, anaikorra...**

**(Ekin)**

Mundu honentzat dituzuen ametsak konparti itzazue. Eta horiek bistara ekartzeko, munduko mapa marraztuko dugu zatar-paper handi batean.
Munduko mapan horretan itsatsiko ditugu 'post-it' edo kolorezko papertxoak, bertan amesten dugun munduari buruzko komentarioa idatziko dugularik.
Hona hemen adibide batzuk:

*-Jenny, Ekuador:* "nekazarien familiok hobeto bizitzeko dirua irabazteko aukera emango digun mundua dut amets".

*-Toni, Angola:* "gazte guztientzako aukerak izango dituen mundua dut amets".

*-Marta, Basauri:* "denok lana izango dugun mundua amesten dut".

*-Zuon txanda.*

Berdin da iparraldetik edo hegoaldetik, ekialdetik edo mendebaldetik gatozen; denok ditugu amets politak gure munduarentzat. Eta orain, hauxe da galdera: zer egiteko prest nago, egi bihur daitezen?

**Elizbarrutietako Misioetan atea zabalik dugu gure ametsekin bat egin eta bestelako mundu bat egiteko konpromisoa hartu nahi duten guztientzat.**

**MAPA DE LA ISLA**




**El baúl encontrado en la costa contenía:**

2 rifles, 1 caja de municiones, 1 hacha, 1 caja de cerillas,
1 cuerda, 1 lona, 1 navaja, 1 botiquín de primeros auxilios,
6 latas de judías, 6 latas de carne concentrada 6 cajas de leche.

